


BIZITEGI MULTZOA
C MAILA

ARANTZAZUKO ANDRE MARIA MULTZOA 45-46-47



Egilea eta data: Luis Elizalde, 1919-1922

Deskribapena

Etxebizitzaren bloke lineala, erdisotoa, bastardea eta bi goi oin dituen. Entokatutako fatxada. Bi isurkiko estalkia, zurezko harburuak dituzten teilatu hegala zuzenez amaitua. Oinplanoa hiru eskaileren bidez antolatzen da. Horiek bi etxebizitzarako sarbidea dute muturreko tartetan, eta hiru etxebizitzarako erdiko tartean. Lehen oinean, etxebizitza berari dagozkion bao pareak balkoi bikoitzean irekitzean dira. Konposizioari dagokionez, hiru tartek ardatzarekiko duten simetriatik bereizten dira. Eskaileretako leihoak eta banalerroetan teilatu hegala azpian dauden mentsulek definitzen dute ardatza. 1919ko jatorrizko proiektua familia bakarreko errenkadako etxebizitzaren komuna da (1-43 zenbakiak, Arantzazuko Andre Maria multzoa).

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: ez.
 - B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: ez.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: "Arantzazuko Andre Maria" E mailako multzoaren barruan egotearen ondoriozkoak; ez dira handitzeak baimentzen.
 - D.- Nahitaezko murrizketak:
 - * Fatxadetan, lorategiko eta alboetako eranskinak ezabatzea.
 - * Adreiluz edo morteroz estalitako zokaloetan silarrixka lehengoratzea.